



Usurbilgo Udala



USURBILGO NERABEENTZAKO UDAL ZERBITZU KONTRATUA ARAUTZEN DUEN KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA

1. HELBURU OROKORRA

Kontratazio honen helburua Usurbilgo nerabeentzako udal zerbitzua planifikatu, artatu eta kudeatzea da, (Usurbilgo San Inazio kale 3an dagoena), beti ere plegu honetan ezarritakoaren arabera eta Gazteria Arloarekin koordinatuta eta haren jarraibideak beteta.

Usurbilgo Udalaren Gazteria Politikaren xede nagusia, Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sistemaren berbera da. Tokiko haur, nerabe eta gazteei haien haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko, eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, etapa bakoitzak duen bi zentzuetan:

- Berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa.
- Gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak indartzuz, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igartzeko aukera ematen duen etapa gisa.

Gozatzeko eta garatzeko aukera, modu iraunkor eta egonkorrean, ahalbidetu ahal izateko, tresna eraginkorrenak adin-tarteei zuzendutako zerbitzu publikoak dira. Hori dela eta, Usurbilgo Udalak nerabeentzako udal zerbitzuaren eskaintza iraunkor egiteko hautua egin du.

2. ZERBITZUAREN IZAERA

Usurbilgo 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzendutako proiektua da.

Gaztelekua ondoko irizpideen arabera definitzen da:

- Gizarte eta Heziketako zerbitzu publikoa da, doakoa eta eskuragarria, 12-17 urte bitarteko nerabeei zuzendua dago.
- Gaztelekuaren eskaintza nerabeen eskaera eta premietan oinarritzen da. Programazioa nerabeen interes eta proposamenetan oinarrituko da.
- Zerbitzuaren jarduerak azpiegituran bertan nahiz kalean edo aire zabalean egingo dira.
- Gaztelekua parte hartzerako eta aukerak emateko tresna komunitarioa da.
- Gaztelekua Usurbilgo herri dinamikan txertatua dagoen zerbitzua da..
- Gaztelekuak hezkuntza asmoa du oinarri, eta hezitzailearen eta nerabeen arteko harremana du abiapuntu.

Jarduera arlo hauek izango ditu zerbitzuak:

- Informazioa

Nerabeek eskura dituzten baliabideak (kultura, hezkuntza, lana, bidaiak, osasuna...) eta aukerak bereganatzea errazteko.



Usurbilgo Udala



- Orientazioa

Nerabeen bizitzako esparru ezberdinetan garatzeko dituzten aukerak ezagutzeko eta erabakiak hartu ahal izateko laguntza da.

- Bide-laguntza

Nerabeekiko laguntza eta segimenduzko harremana.

- Aisia hezitzailea

Aisialdia ondo pasatzeko eta atsegin hartzekoa izanik, helburu hezitzaile esplizituak lortzeari begirako egitasmoak sortuko ditu Gaztelekua zerbitzuak.

- Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak

Nerabeek beren iritziak adierazi, proposamenak egin eta erabakiak har ditzaten benetako aukerak sortu eta dinamizatzea.

- Sorkuntzarako eta produkziarako bideak

Nerabeek beren sorkuntza eta produkzio gaitasuna indartu eta bideratzea. Nerabeei interesatzen zaizkien jarduera indibidual eta kolektibo desberdinak gauzatzeko aukerak ematea.

- Zeharkako lerroak

Zeharkako lerroak izango dira: hizkuntza normalizazioa, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna eta nerabe guztien integrazioa

3. HELBURUAK

Helburu iraunkor nagusiak berriz:

- Aisialdiaz gozatzea modu aktiboan, partaidetzazkoan, sortzailean, osasungarrian eta ongizate emozionala ahalbideratzekoan.
- Autonomia, nor bere burua antolatu eta kudeatzeko gaitasuna lortzea, eguneroko bizitzako ekintza gehienak (aisialditik hasita) helduen laguntzaren beharrik gabe garatzeko gaitasuna lortzera iritsi arte.
- Adin bereko pertsonekin lotura egonkorrak, atsegingarriak eta erreferentziazkoak sortu eta sendotzea.
- Gizarteratzeko harremanak garatzea.

Helburu zehatzak:

- Gaztelekua koadrila eta nerabe ezberdinen arteko topagune komunitarioa izatea.
- Elkarbizitza eta errespetu balioak bultzatzea, kulturartekotasunari eta ingurumenarekiko errespetuari arreta berezia eskainiz.
- Nerabeengan norberak aukeratutako zaletasunak sustatzea sormena lantzea eta nerabeen proiektuak/ekimenak aurrera ateratzeko baliabideak izatea, esperimenduzko bultzatuz.
- Nerabeak adin berekoekin eztabaidatzeko, iritzia emateko, erabakiak hartzeko eta auto antolaketarako gaitasunak garatzea.
- Herrian parte hartze aktiboa izatea, izaera publikoko ekimenak garatuz eta herriko beste eragileekin elkarlanean arituz.
- Ohitura osasuntsuak bultzatzea, eremu ezberdinetan: afektibitatean, elikaduran, kontsumoan, heziketa fisikoan, giza harremanetan...
- Nerabeei informazio eta orientazio eskaini eta beraien premiei erantzutea.
- Nerabeen heziketa prozesuetan laguntzea, gertuko erreferente iraunkorrek eskainiaz.



Usurbilgo Udala



- Hezkuntza hezkidetzaillearen ikuspegia lantzea

3. ZERBITZUAREN HARTZAILEAK

Gaztelekua 12 eta 17 urte arteko Usurbilgo nerabeei eta nerabeez osaturiko lagunarteei eskainiko zaie.

Erabiltzaileen aniztasuna bilatuko da, adinari ez ezik, jatorriari, ikas-zentroari eta sexuari dagokionez ere. Etengabeko detekzioa, hausnarketa eta estrategien diseinua egingo da aniztasun hori lortzeko. Datu horiek Udaleko Gazteria Arloaren teknikariaren eskuetan jarriko dira.

Zuzenean zerbitzuaren erabiltzaile izan ez arren, zeharkako hartzailetzat joko dira nerabeen heziketaren ardura partekatzen duten helduak ere (gurasoak, hezitzaileak, irakasleak, ...).

Zerbitzuaren hartzaileek, finkatutako helburuei eta eskaintako programari jarraituz, eskubidea dute zerbitzua behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko.

4. ZERBITZUA EMATEA

Aurrez zehaztutako helburuetara bideratuta, besteak beste, lan hauek egin beharko dira:

4.1. NERABEEI ARRETA ZUZENA

Lehenago zehaztutako jarduera arloak lantzeko ekintzak antolatuko dira zerbitzuan. Horrez gain, erabiltzaileak libreki aritzeko uneak ere aurreikusiko dira planifikazioan. Egitaraua eskarien eta beharren etengabeko azterketan oinarrituko da.

Eskaintzak honelakoak hartuko ditu bere baitan: antolatu gabeko ekintzak, ekintza antolatuak, tailerrak, ikastaroak, proiektzioak, ikuskizunak, solasaldiak, irteerak, herriko edo auzoetako ekimenetan parte hartzea, proposamenak egiteko bide anitzak...

Metodologiaren ikuspegitik proiektuak programatu eta jarraipena egiteko orduan funtsezkoa da nerabeek pixkanaka gero eta gehiago parte hartzea. Harremani dagokienez, oso garrantzitsua da profesionalak nerabeen berezko esparrua errespetatzea, baina beti ere, bere enpatia eta hurbiltasuna eskainiz eta haietzako erreferentzia izateaz arduratuz.

Partaidetzarako espazioak eta edukiak zeintzuk izango diren erabiltzaileekin batera definituko dira, beren ezaugarriak eta berezitasunak kontuan izanik, baita alde aurretik definitutako mugak (ordutegiak, muga ekonomikoak, ...) errespetatuz. Erabakitzeke irizpideak argiak eta ezagunak izango dira.

Nerabeak herritar aktibo bihurtzeko urratsak emango dira, bizitza sozialean parte har dezaten eta jarrera sozialki arduratsuak beregana ditzaten; besteak beste, talde ekimenak sustatuz (beti ere proiektio sozial bat duten ekimenak baldin badira) edo jarrera sozialki arduratsuak bereganatzeko ekintzak garatuz (kontsumo arduratsua, birziklatzea, ...)



Usurbilgo Udala



Harremani dagokienez, oso garrantzitsua da profesionalak nerabeen berezko esparrua errespetatzea, baina betiere bere enpatia eta hurbiltasuna eskainiz eta haietzako erreferentzia izateaz arduratuz. Nerabeen arteko harremani dagokionez ere, elkarbizitzarako arauak zerbitzuaren erabiltzaileekin batera landuko, eztabaidatuko eta adostuko dira.

4.2. BARNE LANA

Aurreko atalean aipatu ditugun nerabeentzako arreta zuzeneko jardueraz edo ekintzez gain, Gaztelekuak funtzionatzeko nahitaezkoa da honako barne-lanak aurrera eramatea:

4.2.1. Zerbitzua planifikatzea

Planifikazioaren bitartez, helburuak lortzeari begirako jarduerak, estrategiak eta ekimenak zehaztuko dira. Horretarako, zerbitzuaren aurrekariak hartu behar dira kontuan: aurreko ebaluazioak, udaleko Gazteria sailak zehaztutako lehentasunak, erabiltzaileen proposamenak...

Zerbitzuak, gizarte eta hezkuntzarako esku-hartzeko proposamena izaki, planifikatutako espazioa izan behar du, alegia, planifikazio sistema argi bat behar du. Aldiro, berrikusiko den sistemak beti izango ditu abiapuntu nerabeen beharrak, eta horien arabera helburuak zehaztuko ditu. Horrela esku-hartze marko konpartituaren arabera etengabeko planifikazio zikloa izango du oinarrian: helburu, programazio, ekintza eta ebaluazio jarraitua. Horiek guztiak nerabeen parte hartzearekin garatuko dira.

Planifikaziotik eratorritako programazioetan bermatu beharko da pertsonen eta komunitatearen definitutako beharrei erantzutea. Halaber, aldi berean, aipatutako zehar lerroei erantzun beharko zaie (euskara, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta integrazioa) eta aurrera eramango diren ekintzek jarduera eremuetan tokia izan beharko dute

Ikasturte hasieran urtean zehar bete beharreko helburuak plangintzatuko dira. Eta helburu hauen oinarriko programazioa bi hilabetero egingo da, beti ere helburuen betetze maila kontuan hartuz.

Arreta berezia eskainiko zaie jardueren programazioari eta plangintzaren eta erabakiak hartzeko prozesuaren izaera parte hartzaileari. Nerabeek zerbitzuko kudeaketa atal desberdinetan nola parte hartu sustatu beharko da.

Gaztelekuaren jarraipena egiteko, bi txosten mota egingo dira: bi hileko jarraipena eta ikasturtekoa.

BI HILEKO JARRAIPEN TXOSTENAK, honakoak jasoko ditu:

Egindako lana:

Eguneroko parte-hartzea, egunero egiten diren ekintzak baloratzea eta ebaluazioa: helburuak eta



Usurbilgo Udala



zehar lerroak, parte hartzaileak (adinaren arabera ebaluazioa, generoaren arabera, erabiltzaileen motibazio eta jarrera, gertakariak, harremanak), ekintzak eta dinamika, baliabideak, koordinazioa, aurrera begirakoak...

Urtean zehar egingo den lanaren planifikazioa: helburuak eta ekintzak zehaztuz.

URTEKO MEMORIAK honakoak jasoko ditu:

Egindako lana:

Urteko memoriak, berriz, hauek jasoko ditu: arreta zuzena (ordutegia, erabiltzaileak, harremanak, eskaintza), barne-lana (planifikazioa, komunikazio eta koordinazioa, kudeaketa, ebaluazioa) eta hobekuntza proposamenak.

Urtean zehar egingo den lanaren planifikazioa: helburuak eta ekintzak zehaztuz.

Urteko planak eta planifikazio zehatzak lantzerakoan genero ikuspegia txertatuko da.

Plangintza bera Gazteria teknikariarekin adostu beharko da. Horretarako oinarri gisa erabiliko dira bi hilabeteko egiten diren jarraipen txostenak eta urteko memoria.

4.2.2. Zerbitzua ebaluatzea

Ebaluazioak barnean hartzen du eginkizun-ziklo berri bati aurre egiteko aukera ematen duten deskribapenak, analisiak eta balorazioak lortzeko xedez, zerbitzuari eta inguruneari buruzko informazioa lortu eta prozesatzeko egiten den guztia. Nerabeen parte-hartzea funtsezkoa izango da Zerbitzuaren ebaluazioan. Gutxienez honako gai hauek aztertuko ditu: beharrak eta baliabideak, jarduerak, emaitzak eta eragina.

Zerbitzuaren ebaluazioak beren hartzaileen asebetetze-maila ere neurtuko du eta maila hori hobetzeko prozedurak eta metodoak proposatuko ditu.

Gaztelekua Zerbitzua ebaluatzeko hainbat momentu aurreikusten dira:

- Ebaluazio jarraia: zerbitzuari dagozkion datuak kontuan hartuz: bai datu kuantitatiboak (asistentzi erregistroen estatistikak, ekintzetako parte-hartze estatistikak, jarraipen-fitxak...), bai kualitatiboak (asebetetze maila, parte hartze erak...)

Atal honetan kontuan izango dugu 4/2005 berdintasunerako legeak adierazten duena 16. artikuluan: genero ikuspegia benetan egunerokoan txertatzen dela bermatzeko, azterlanak eta estatistikak egiterakoan honakoa izango da kontuan:

a) Egingo diren estatistiketan, erregistroetan, datu baseetan, galdetegietan, formularioetan... sexu aldagaia sistematikoki sartzea.

b) Estatistikako eragiketetan adierazle berriak ezarri eta sartu, hain zuzen ere emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharretan dauden aldeak, horien guztien



Usurbilgo Udala



adierazpena eta aztertuko den errealitaterarekin duten elkarreragina hobeto ezagutzea posible egiteko.

Ebaluazio jarrai honekin osatutako datuekin bi hilabetero ebaluazio-txostenak aurkeztuko dira. Ebaluazio txosten hauen edukia udalarekin adostutakoa izango da. Txosten honetan, halaber alor ekonomikoaren jarraipena egingo da: hileroko zerbitzuak garatutako ekintzen eta erosketen gastuen balantzea aurkeztuko da, dagozkien ziurtagiriek.

Balorazioa egin ondoren, hurrengo bihilabeteari begirako proposamenak aztertuko dira Udalarekin batera.

- Ikasturteko ebaluazioa:

Urteko ebaluazio-txostena urte amaieran aurkeztuko da, zerbitzuaren atal guztien balorazioarekin eta hobekuntzarako proposamenekin. Aurrera eramaten diren lanen ikus-entzunezko (bideoa eta argazkiak) erreportajea egingo da eta memoriarekin batera aurkeztuko da. Haren kopia bat Udalari emango zaio, Gaztelekuaren sustapen erabileretarako.

4.2.3. Koordinazioa eta difusioa

Koordinazioaz hitz egiten dugunean honako hauetaz ari gara:

- Barne koordinazioa: hezitzaile-taldeko kideak zerbitzuaren jarraipena egiteko bilduko dira astero. Barne-komunikazioari arreta emango zaio, zerbitzuko langile guztiek zerbitzuan kokatzeko eta lana egiteko behar duten informazioa helaraziz.
- Udalarekiko koordinazioa: Udalarekin koordinazio mota hauek burutuko dira:
 - a) Bi hilean behin, gutxienez, zerbitzuko jarraipen bilerak, zerbitzuaren koordinatzailearen eta Udaleko gazteria teknikariaren parte hartzearekin.
 - b) Sei hilabetero, zerbitzuko ebaluazio bilerak, parte-hartzaile hauekin: zerbitzuko koordinatzaile eta langileak, gazteria teknikaria eta gazteria zinegotzia.
 - c) Horrez gain, behar bereziak dituzten nerabeen arretaren jarraipena egiteko bilerak egingo dituzte zerbitzuko langileek, eta Udalak (Gazteria teknikaria eta Ongizate Saileko teknikari bat). Gutxienez bi aldiz aldiz elkartuko dira: iraila inguruan eta martxoa inguruan.
 - d) Organo teknikoaren bilera: urtean bitan egingo da. Bertan izango dira udal gazteria zinegotzia, udal gazteria teknikaria eta Gaztelekuko bi hezitzaileak.
 - e) Urtean behin kultura, Euskara eta Gazteria Batzorde Informatzailean zerbitzuaren berri emango du Gaztelekuko koordinatzaileak.
- Beste zerbitzuekiko koordinazioa: herrian edo inguruan adin-tarte berdinarekin lan egiten duten zerbitzuekiko eta erakundeekiko koordinazio sistema bat definituko da, maiztasun batekin eta helburu jakin batzuekin.



Usurbilgo Udala



- Beste eragileekiko koordinazioa: nerabeekin lotura duten eta zerbitzuaren lanerako interesgarriak diren eragileekiko koordinazioa sustatuko da. Besteak beste, eragile hauekin: gurasoak, herriko kultur, gazte eta aisialdi taldeak, ...

Izan ere, Gazztelekuak arreta berezia emango dio familiekin harremana izateari eta inguruneke beste eremu edo sistema batzuetako agenteekin edo zerbitzuekin sarean lan egiteari.

Zerbitzuaren difusioa ere izango da esleipendunaren ardura, zerbitzuaren zentzua, eginkizuna eta egitasmo zehatzak helburu-taldearengana (12-17 urte bitarteko nerabe guztiengana) nahiz herritar guztiengana irits daitezzen.

4.2.4. Formazio iraunkorra eta baliabideen nahiz azpiegituraren zerbitzua

Zerbitzuko langileak lurraldeko antzerako zerbitzuetan garatzen ari diren dinamiken berri izango dute, lurralde mailan antolatutako hezitzaileen foroetan parte hartuz.

Baliabide eta azpiegituraren zerbitzuari dagokionez, zerbitzu emalea honako hauen inguruko plangintza, arreta eta jarraipena egiteko lanaz arduratuko da: giza baliabideak (hautaketa, harrera, sustapena, laneko osasuna, ...), baliabide ekonomikoak, baliabide materialak eta azpiegitura.

4.3 ZEHAR LERROEN PLANIFIKAZIOA ETA GARAPENA

Gaztelekuan landuko diren zehar-lerroak garatzeari begirako estrategiak diseinatu eta abian jarriko dira ikasturte bakoitzean, hurrengo irizpideak kontuan harturik:

- Hizkuntz normalizazioa

Gaztelekuaren ohiko hizkuntza euskara izango da, bai arreta zuzenean baita lanerako hizkuntza gisa ere (harremanetarako, koordinaziorako, ...). Hortaz, behar besteko baldintzak bermatuko dira (hezitzaileek euskara ondo jakitea, materialak euskaraz ekoiztea, difusioan, ...).

Zerbitzua ematerakoan, Udalak onartuta duen Euskararen Erabilera Plana eta UEMAren hitzkuntza irizpideak errespetatuko dira. Udaleko Euskara Zerbitzuarekin koordinatuko da Gaztelekua.

Nerabezaroa hizkuntza ohiturak definitzeko adin esanguratsua izaten da, eta gure helburuak bi izango dira: batetik hizkuntza ohituretan euskararen hautua egitea eta bestetik, euskararen aldeko motibazioa piztea eta euskararen aldeko eragile zuzen bihurtzea nerabeak.

Erabileraren esparruan euskararen eredu informalak zainduko dira bereziki, gazte hizkera bizia eta gaurkoa eskaintzeko gai izan beharko gara, nerabeek euren beharretan inolako zailtasunik gabe, erraztasunez euskara erabil dezaten. Eginbehar horretan garrantzi berezia hartuko du bertako euskalkiaren eredu eskaintzeak.

Motibazioari dagokionez, herrian bertan nahiz Euskal Herrian euskalgintzan diharduten agenteen berri emango zaie, haietan aktiboki parte hartzeko motibazioa pizteko helburuarekin.

- Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna

Nesken eta mutilen arteko oreka zaintzeko ahaleginak egingo ditu Gaztelekuak, neska eta mutilen



Usurbilgo Udala



arteko aukera berdintasuna ahal den neurrian bermatzen: eskaintza bi sexuen interesekoa eginez, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko uneetan nesken presentzia eta parte hartze aktiboa bultzatuz, espazioen banaketan neska eta mutilen interesak kontuan hartuz, difusio materialetan bai nesken bai mutilen irudiak agertuz eta hizkuntza ez-sexista erabiliz, eta abar.

- **Inklusioa-integrazioa:**

Nerabeen aniztasunaren barruan, behar bereziak dituzten nerabeei arreta berezia eman beharko die Zerbitzuak (gizarte zailtasun egoeran daudenei, ezintasun fisiko, psikiko edo sensorialak dituzten nerabeei, jatorriz beste kultura batekoak diren nerabeei, arrisku portaerak adierazten dituzten nerabeei, eta abar).

Inklusioa bultzatzeko Udaleko Gizarte Zerbitzuekin koordinatuko da Gaztelekua.

5. AZPIEGITURAK ETA BITARTEKO MATERIALAK

5.1. Azpiegiturak

Usurbilgo Gaztelekua, (San Inazio 3) adjudikaziodunari dohainik utziko zaio Gaztelekua Zerbitzua emateko, kontratua indarrean dagoen bitartean. Nolanahi ere, leku hau, beste toki bat izendatzeko gaitasuna du udalak.

Zerbitzua modu egokian eskaini ahal izateko behar den oinarrizko ekipamendua, materiala eta ekipo informatikoa udalak jarriko ditu. Guzti horiek inbentario batean jasoko dira eta kontratuak dirauen bitartean erosten diren elementu inbentariagarriak ere gehitzen joango dira. Inbentario hau kontratuari atxikiko zaio.

Energia elektrikoaren eta telefonoaren erabilera administrazio onaren printzipioen arabera egin behar du adjudikaziodunak. Gastu horiek Udalak ordainduko ditu.

Utzi diren instalazio eta materialak egoera onean eduki behar dira eta ondo zaintzeko bitartekoak erabili.

Gaztelekuaren oinarrizko garbiketaz Gaztelekuko erabiltzaileak arduratuko dira. Modu honetara hezitzaileek hau hala egin dadin beharrezko neurriak hartuko dituzte.

Urtean zehar Udalak Gaztelekuaren garbiketa sakona egitearen ardura hartzen du.

Administrazioak adjudikaziodunaren esku jartzen dituen informazioa, dokumentazioa, programa informatikoak eta gainerako bitarteko edo datuak administrazioarenak dira, eta ezin daitezke erabili edo erreproduzitu kontratatutako lanak garatzeko beharrezko den neurrian baizik. Adjudikaziodunak kontratua bukatutakoan itzuli edo suntsitu beharko ditu baliabide horiek.

5.2. Baliabide materialak

Zerbitzuetako ekintzak burutzeko eta behar den materiala erosteko (jarduerak, irteerak, bulego gastuak, ekintzetarako materiala...) eta ikastaroak, irteerak, tailerrak, antolatzeak, gutxienez 2200



Usurbilgo Udala



euro erabiliko ditu esleipendunak urtean.

Gastu horiei dagozkien zuriak eta ordainagiriak bi hilero aurkeztu beharko dira udalean, diru sarreren balantzeraekin batera.

Diru-kopuru hau lizitazioaren prezioaren barruan dago, ez du udalak aparte ordainduko.

Urtea amaituta 2200 euro baino gutxiagoko gastua egingo balitz, urteko azken fakturan dagokion deskontua egingo litzateke.

6. GAZTELEKUKO LAN-TALDEA ETA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

6.1. LAN TALDEA

Adjudikaziodunak bi pertsona jarriko ditu zerbitzu hori emateko, eta Gaztelekuko lan-taldea osatuko dute. Haietako batek hezitzaile lanak egingo ditu eta bigarrenak, hezitzaile lanez gain, koordinazio lanak ere hartuko ditu bere gain.

Lan-taldekide bakoitzaren asteroko lan-denborak hauek izango dira:

- Hezitzaile-koordinatzailea: arreta zuzenerako 9 ordu eta barne-lanerako 9 ordu
- Hezitzailea: arreta zuzenerako 9 ordu eta barne-lanerako 3 ordu

Asteburuko egun batean gutxienez zabalik egongo da Gaztelekua.

Lan-taldearen dedikazioen barruan daude Gaztelekuan emango den arreta zuzena zein ez-ohiko jarduerak (irteerak, ekintza bereziak,...).

Gaztelekuko arreta zuzena ematen den bitartean, eta ez ohiko jardueretan gutxienez bi hezitzailek egon beharko dute zerbitzu hori ematen.

Esleipenaren adjudikaziodunak aurre egingo die gerta daitezkeen ordezkapenei. Ordezkoek titularrek dituzten baldintza berberak bete beharko dituzte.

Hasierako pertsonalean edozein aldaketa egiteko, Udalak oniritzia eman beharko du.

Era beran, langile bakoitzak bi hilabeteetan bete duen ordutegi xehetua ere aurkeztuko da udalean. Bestalde, honakoak ere aurkeztuko dira bi hilero: bi hilabeteetako ebaluazio txostena eta hurrengo bi hilabeteetako aurreikuspena, nerabeen asistentziak eta bi hilabeteko materialen gastuen zerrenda.

6.2 FUNTZIOAK

Hezitzaileen funtzioak honako hauek izango dira:



Usurbilgo Udala



- Gaztelekuaren plangintzaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte-hartzea
- Erabiltzaileen eta ez erabiltzaileen parte-hartzea sustatzeko estrategiak probatzea eta abiatzea.
- Etengabeko detekzioa, hausnarketa eta estrategien diseinua egin, erabiltzaileen aniztasuna lortzeko.
- Erabiltzaileen, haien premien (berariazkoak edo ez) eta eskaeren bilakaeraren jarraipena egitea, ahalik eta modurik hurbilekoenean. Era berean, arazo jakinak atzemanaz gero, aurrez adostutako protokoloaren arabera jardutea.
- Gaztelekuaren eguneroko jarduna planeatzea eta ebaluatzea, baita abiatzea ere.
- Gaztelekuaren eguneroko premien jakitun egotea (zein material behar diren, funtzionamendu arazoak, ...).
- Zerbitzua erabiltzen duten nerabeekin heziketa prozesuak garatzea.
- Erabiltzaileen guraso eta tutoreekin, eta bestelako baliabide komunitarioekin, zuzeneko harremana izatea, erabiltzaileei eta zerbitzuari buruzko gaietarako.
- Zerbitzuaren jarraipenerako eratuko diren organoetan parte hartzea.
- Gaztelekua garbi eta ordenaturik mantentzea. Instalazioak zaintzea eta zainduaraztea.
- Nerabeek gaztelekua garbi dezaten txandak antolatzea eta horren jarraipena egitea.
- Gaztelekuaren difusioa egitea: besteen artean, herriko komunikabideekin harremana izatea, herriko kultur agendan berriak iragartzea...
- Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak betetzea.
- Usurbilgo kultur eta kirol agendaren jarraipen estua egitea, Gaztelekua eta herrigintzaren arteko zubiak eraikiz.
- Lurralde mailako hezitzaile foroetan parte hartzea.
- Udalarekin koordinatzea, organo teknikoko bileretan parte hartuz.

Hezitzaile-koordinatzailearen funtzioak honako hauek izango dira:

- Hezitzaileei dagozkien lan propio guztiak.
- Hezitzaile guztien parte-hartzearekin, Gaztelekua antolatzeko eta funtzionatzeko urteko proposamenak eta bi hileko planifikazioak egitea, baita horien jarraipena egitea ere.
- Zerbitzuaren funtzionamendua ebaluatzea eta beharrezkoa denean hobekuntzak proposatzea.
- Udaleko Gazteria Arloarekin koordinatzea, gutxienez hilean behin. Beharren arabera, beste udal arlo batzuekin ere koordinatzea.
- Gaztelekua emakidari lotutako arazo guztien berri eta sortzen diren beharizanen berri ematea Gazteria Arloari.
- Udalarekin koordinazio bilerak egitea: gazteria teknikariarekin, Ongizate Sailarekin, parekidetasun teknikariarekin...
- Beste gizarte eragileekin koordinatzea: tokiko erakundeekin, ikasketa-zentroekin, beste zerbitzu publikoekin, herriko elkarteekin, etab.
- Lokalaren beharizanak behatzea eta asetzea, hala nola, behar diren erosketak egitea. Kontuak, eta administrazio eta kudeaketa kontuak eramatea.



Usurbilgo Udala



7. TARIFAK

Zenbait kasutan, ez ohiko jarduerak antolatzen direnean (irteerak, material berezia edota adituak kontratatzea eskatzen duten ekintzak...) tarifa bat kobratu ahal izango da, beti ere, Udalaren oniritziarekin.

Edonola ere, erabiltzaileek ordaindu beharreko ekintzen kasuetan, diru-sarrera eta irteeren balantzea espezifikoa azaldu beharko du esleipendunak dagokion txosten ekonomikoan.

8. ZERBITZUAREN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

Zerbitzua astean gutxienez 9 orduz zabalduko da arreta zuzena emateko.

a) Ikasturteak irauten duen bitartean, Gutxienez, hiru egunetan eman behar da jendaurreko zerbitzua eta horietako bat asteburuko eguna izango da. Proposamen bat hau izan liteke:

Asteko bi egunetan (egun hauek jarraian izan gabe): 16:30-19:30

Larunbatetan (edo igandean): 16:00-19:00

Nolanahi ere, proposamen hau hobe liteke. Bestalde, Usurbilgo Udalak egutegia alda lezake, beti ere ordu kopurua mantenduz.

Espazioaren nolakotasuna ikusita, eta aurrez datozen ohiturei jarraituta, adin-tarte desberdinei zuzendutako txandak antolatuko dira.

b) Gabonetan, Aste Santuan eta ekaina-uztailean, nerabeei zuzendutako egitarau berezia antolatuko da, opor garaia egokitua. Garai hauetako ordutegiak egitarau bereziari egokituko zaizkio, goizeko ordutegien aukera kontuan hartuz. Herriko jaietan eta abuztuan ez da zerbitzurik eskainiko.

Egutegi eta ordutegi horiek aldatu ahal izango dira, egitarau berezi edota ekintza jakinen baten eraginez. Erabileraren arabera edo erabiltzaileen proposamenak kontuan hartuta, egutegia eta ordutegia moldatu ahal izango dira, baina, beti ere, udalaren oniritziarekin.

Proiektua aurkezten denean, urteko guztizko ordu kopuru proposamena adierazi behar da. Ordu kopuru honetan egin beharreko lan guztia sartuta egongo da.

Era berean urteko egutegi zehatza ere aurkeztu behar da.

Azkenik, langile bakoitzak urtean bete behar dituen ordu kopuruak eta ordu horien hilabetetako banaketa ere aurkeztuko da.

9. MEMORIAK JASO BEHARREKOA

Aurkezten den proposamenak, gutxienez, jarraian zerrendatzen puntuak jasoko ditu.

Proposamenak, bestalde, egitura eta hurrenkera hau jarraitu behar du:



Usurbilgo Udala



1. PROIEKTUA

Urtebeteko proiektua aurkeztuko da. Gutxienez puntu hauek jasoko ditu:

1.1. Oinarri teorikoak

- Esparru teorikoa eta testuinguruan kokatzea
- Gaztematikarekiko lotura
- Helburuak
- Zehar lerroen tratamendua

1.2. Lan metodologia eta antolaketa

- Arreta zuzena emateko proposamena
- Barne-lana antolatzeko proposamena eta udalarekiko harremana
- Ekintzak
- Metodologia
- Azpiegiturak eta materiala
- Giza baliabideen koordinazioa
- Jazarpen egoeren aurrean Gaztelekuak jarraituko duten protokoloa
- Komunikazio-plangintza
- Udalarekin bilerak egiteko urteko egutegi-proposamena
- Egutegia eta ordutegiak
- Langile bakoitzak urtean eta hilabetero sartuko duen ordu kopurua
- Kronograma
- Ebaluazioa

1.3. Proiektuak herriarekiko duen lotura

- Alor desberdinetan (Kultura, euskara, gazteria, kirola...) zerbitzurako esanguratsuak izan daitezkeen baliabide eta elkarten ezagutza eta aipamena
- Baliabideekiko eskuhartze harreman proposamena
- Proiektua udalerraren errealitatera egokitzeko ekintzak

2. HOBEKUNTZAK

Egutegian, ordutegian, materialetan, bestelako hobekuntzak...